



Laborea ontzen ari da Etxauri aldean.

Piztizaleon berriak: EKAINA

Migel Mari Elozegi*

Kri-kri-kri-kri-kri... Ez trikitixa, ez rokanrola, ezta "bakailoa" ere. Hauxe da jaun-andreok Euskal Herrian sanjoanetan gehien entzuten den musika. Kilkir arren emanaldiak gainera, dohainik izaten dira eta hauek entzuteko nahikoa da belar-soro batera hurbildu eta arreta jartzea. Urteko egun luzeenez gozatzen ari garen sasoi honetan, animalia gehienak lanean erruz ari dira: kilkirrak kantari ugalkideak erakarri

nahiean, beste asko kumeak hazten, eta abar. Temperaturek gora egitearekin batera kilkirrak ez ezik, bestelako intsektu eta orno-gabe pila agertuko da. Tximeleta, txitxiburduntzi, marigorringo eta antzeko zomorro ederrez gain, nonahi aurki daitezke hain gustukoak ez ditugun akainak, mando-euliak edota eltxoak ere. Orno-gabe hauez, ordea, bestelako animalia asko elikatzen da, eta azken finean, piramide ekologikoan garrantzi handikoak dira guztiak.

Pirinioak aldeko kaskoetara ere udaberria iritsi da eta lore ederrezz bete da dena. Azkenean, hemengo artzainek ere goiko larreetara igo ahal izanen dira. Hegoaldeari dagokionez, gari-soroak horitzen hasi dira eta gereziondoak fruituz gainezka ditugu. Kaleetan berriz, udaren atarian, gizakioi galtza, gona eta kamiseta motzak prestatzen has-teko tenorea iritsi zaigu.

Txitxiburduntziaren metamorfosia

Herriko erreka txitxiburduntzien larben azken egunetako portaera harrigarria da. Izan ere, normalean jan besterik egiten ez duten arren azken aldian mokadurik ere ez dute irentsi eta zer edo zer gertatzeaz dagoela soma daiteke. Bat-batean, hauetariko bat urazaleratu eta pixkanaka, ihi batean gora igo da. Oxigenoa arnasten hasi dela dirudi! Erne irakurle, gure larba urtarra lehorratzeko prestatzen ari da eta! Ihian dagoelarik, bizkarrean tarratada bat egin zaio eta kolore zurixkako gorputz bat azaltzen hasi da (estralurtarren filme garestienetan ere ez dira honelako eszenak ikusten!). Ordu pare bat gehiago behar izan ditu estalki zahar hau erantzi eta bi hegaltzaren dotore zabaltzeko. Ordu batzuk lehenago larba urtarra zena, kolore bizi-biziko txitxibur-

Egun eguzkitsuetan ekainean bero handia egin dezake. Argazkian Areso.

M.M. Elozegi



Flower



Arreta jarriz gero ornogabe ugari aurki daiteke mendian. Ibai inguruetan arruntak dira sorginorraz eta txitxiburduntziak.

M.M. Elozegi

duntzia bihurtu eta errekan behera abiatu da hegan. Aio, ongi izan!

Sugea bide bazterrean

Sugefoboan zoritxarrerako, giro epelarekin ez da zaila izaten sugeren batekin topo egitea. Ixurialde mediterraneoan, esate baterako, erraza da Montpellierko sugea ikustea. Suge bizkor hau pozointsua da, baina bere letaginak ahorearen barrualdean daudela eta, pertsona bati pozoia sartzea ia ezinezkoa da. Dena den, sartuta ere pozoi hau gizakiontzat ez da oso eraginkorra. Narrastiak ehi-

Montpellierko sugea errepede bazterrean.

zaten dituen sagu eta bestelako animalia txikiak menperatzeko ordea, bikaina da. Honela, sagutxo bat heldu eta irensten hasi orduko, ahoaren atzealdeko letagin hauekin pozoia sartzen dio, sabeleratu eta liseritzeko lanak erraztearren.

Jantzi-aldaketa

Normalean oso koloretsuak ez diren arren, tarteka ia kolorerik gabeko sugeak ikusten dira. Ezau-garri honek, larruazala aldatzekotan dela erakusten du eta halakotetan, sugeak jateari uzten dio. Pixkanaka, zaharraren azpitik berria garatzen du eta larrua aldatzear dagoenean kolore urdintsua hartzen du. Une batean, ezpainen

inguruan zarrata irekitzen zaio eta zulo hori handituta, burua ateratzen du. Sugearen mugimenduei esker, eskutatik eskularru bat kentzen den bezalaxe zahartutako larrua erazten du eta azpitik janzkera berria zuenez, kolore bizi-biziko suge dirdiratsua azalduko zaigu.

Ikusitako prozesua, larru-berritzea, alegia, sugeek urtean 5-6 aldiz egiten dute. Anfibioek ere larruazala aldatzen dute, eta berdin gertatzen da ornogabeen kanpo-estalkiarekin ere. Gizakioi ere antzeko zer edo zer gertatzen zaigu eguzkitan erre ondoren.

Hegaztien muda

Sugeek larruazala zaharberritzen duten bezala, hegaztien lumak ere zahartzen dira eta noski, hauek ere aldatu egin behar. Luma guztiak batera eroriz gero hegan egiteko gaitasuna galduko luketenez, pixkanaka eta ordena jakin batean aldatzen dituzte hauek. Dena den, ahate-espezie askok, muda burutzen dutenean hegan egin ezinean gelditzen dira zenbait egunez, eta horregatik, hezegune aproposetara jo behar dute hori egiteko. Luma-aldatzeak energia-behar handia du eta noski, hegaztiak gehien komeni zaien garaian burutzen dute. Askok, kumaldiaren ondoren berriztatzen dute eta era honetan, migrazio-garaia iristen zaienerako, lumaje berria prest izaten dute.

Amiltxoriak Las Cañas-en

Amiltxoriak, lertxunen familiako hegazti gautarrak dira hauen alde-



M.M. Elozegi



an txiki samarrak izan arren. Hezeguneetan bizi dira eta landaretza trinkoan ederki moldatzen dira. Ilundu orduko, amiltxoriei bazkarako garaia iristen zaie eta gehien ehizatu ohi dituzten animaliak, intsektu urtarrak, krustazeoak eta ornodun txikiak dira. Negua Afrikan pasa ondoren, apirilean itzultzen dira ugaltzeko asmoz. Euskal Herrian, amiltxorien kolonia ezagunak ditugu. Lapurdin adibidez, Aturri ibaiak Lehuntze, Urketa eta Ahurtiren parean dituen irletan kolonia eder-rra dago. Nafarroan berriz, Ebro

dira gure lurraldean: ganga azpi-beltza eta azpizuria. Biak ere oso urriak dira eta lehenaren 800 ale inguru egon daitezkeen arren, Nafarroako ganga azpizurien populazioa 400-700 ale bitartekoa dela estimatzen da; oso txikia beraz. Hegazti hauek, ia egunero ura edan behar dutenez, maiz jotzen dute putzu eta ibaietara. Txitoek ere uraren beharra dute

nez, erbitxoa etxeratzeko tentazioa izan dugu. Hala ere, azkenean bertan uztea erabaki dugu eta eskerrak, ama ez baitzuen urruti izango.

Erbia, animalia zuhur askoa dugu. Erditu ondoren eta edoskitzaroak irauten duen hilabetean amak askotan kumeak banatu egiten ditu. Bakoitza leku jakin batean ezkututzen du eta bera, banan-

M.M. Elosegia



Tenore honetatik aurrera ganga azpizuriek beroaldi latzak jasan beharko dituzte. Dena den, baldintza horietarako ederki moldatuak daude.



M.M. Elosegia

eta Aragoi ibaien ertzetako basoetan, eta batez ere Bianako "Las Cañas" aintziran, kumatzen dira. Azken horiek batuta, 325 bikote baino gehiago daude Nafarroan.

Gangak Nafarroako hegoaldean

Gangak, estepa eta ingurune lehorretako hegaztiak ditugu eta Euskal Herrian, Bardeetan, eta inguruko lautadetan bizi dira batik bat. Usoen tamaina dute eta eskualde lehor eta bero hauetan bizi ahal izateko ederki moldatuak daude. Bi ganga-espezie bizi

gangek kumatze-garaian modu arras berezian eramaten diete ura. Izan ere, gurasoek edaterakoan bularraldea uretan sartzen dute luma-tartean ur-tanta batzuk jasotzarren. Gero, ziztu batean txitoengana jo eta zurgatzeko ematen diete.

Erbia, zuhurra bezain susmabera

Gaurkoan urteko lehen letxugen bila alorrera joandakoan, erbikume batekin egin dugu topo. Maitagarria eta otzan-otzana, amarik inondik ere ageri ez zue-

Kozkortutako erbikumea. Bakarrik dagoela badirudi ere, ziurrenik ama ez da urruti ibiliko.

-banan joaten zaie esnea ematera. Litekeena da jokabide honek etsaiek kumeren bat topatzeko arriskua handitzea, baina kumeren bat aurrera ateratzeko aukerak ere emendatzen dira. Erbikumeak ez ezik, garai honetan beste espezie askotako kumeak ere aurki daitezke: txorikumeak, orein-kumeak... baina erne! Galduta eta babesik gabe badirudite ere, gehienetan ama ez da urruti izaten. Guk eskutan hartuz gero ordea, ama izutu eta kumeak zaintzen ez ausartzea gerta liteke. Gainera, kumeak etxera eraman eta haztea lortuta ere, askatzean nekez moldatuko liriteke euren gisa. Bitan pentsatu beraz, kumeren bat etxeratu aurretik.



* Biologoa

